



EUSKADIKO ERAKUNDE PUBLIKOEN BOST WEBGUNEETATIK BI TELEFONO MUGIKORRETARAKO DISEINATUAK DAUDE

Eskaintza publiko elektronikoaren % 1,3 Berdintasunaren arlo funtzionalari dagokio

2016ko Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistikak —Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak egindako errola-operazioa— euskal erakunde publikoek erabilitako 1.131 webgune diferenteen egitura eta ezaugarriak bildu ditu. Gainera, bere orrialdeetan eskainitako zerbitzu, prozedura eta tramite publiko elektronikoak erregistratu eta katalogatu ditu. Horiek aurrerago argitaratuko den lan baten xede izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko eta administrazioetako erakundeen % 81,5ek —toki-mailako erakunde txikiak kontuan hartu gabe— beren zerbitzuak eta tramite elektronikoak eskaintzeko webgunea dute. 2010ean baino ia 20 puntu portzentual gehiago. Erakunde autonomoak —38,2 puntu gehiagorekin— eta sozietate publikoak —21,8rekin— izan ziren web atarien erabilgarritasunean gehikuntza handiena izan zuten erakunde publikoak.

Bizkaiko erakunde publikoek interneteko atarien erabilgarritasunagatik (% 94, 1) nabarmentzen dira

2010ean jada maila ona zuten —% 67,3— Bizkaiko erakundeak dira gehien hazi direnak, jada % 94,1era iritsiz. Ondoren Gipuzkoakoak datoz % 73rekin —15,1 puntu gehiago—. Araba da proportzio txikiena erakusten duen lurraldea: % 66,4; 2010ean baino 10,5 puntu gehiago. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren mende dauden erakunde atarien erabilera % 88,3ra iristen da —24,5 puntu gehiago—.

Bertan aurkitzen ditugun 340 toki-erakunde txikietatik zazpik bakarrik dute webgunea. 2010ean bakarrak zuten.


Bost erakunde publikoetatik batek ez du webgune propioirik baina beste batzuen atariak erabiltzen ditu

Ataria baduten 650 erakunde publikoetatik % 40,9 gune bakar baten —Nagusia— titular eta erabiltzaile dira, % 20,6k bere atari nagusia dauka eta beste erakunde publiko batzuenak diren —batzuetan hauen mende daude— edo erakunde pribatuek kudeatutako beste gune batzuk erabiltzen ditu —atari Ostatu-emaileak—. % 20,3k, berriz, ez du atari Nagusirik baina atari Ostatu-emaileak eskusiboki erabiltzen ditu. % 9,8k, Nagusiez eta Ostatu-emaileez gain, Webgune Lotuak —atari tematikoak—

kudeatzen ditu eta % 7,5ek deskribatutako hiru atari-motak behar dituzte: Nagusiak, Kideak eta Ostatu-emaileak.

Euskal sektore publikoak 1.555 webgune erabiltzen ditu; horietatik 1.131k atari-ezaugarri bereziak dituzte. Kontuan izan behar da atari bat erakunde batek baino gehiagok erabil dezaketela. Domeinu bakarra duten zerrenda 1.012ra jaisten da. 2010ean 861 atari zenbatu ziren, eta horietatik 752 diferenteak ziren.

Webgunea baduten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak, motaren eta barne hartzen dituen lurralde-esparruaren arabera. (Udalez azpiko erakundeak kenduta). 2010-2016. %



ITURRIA: Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila. Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika. 2016

Eskaintza elektronikoko publikoaren laurdena plataforman propioen eta pribatuen bitartez bideratzen da, eta udalenen heren bat da

Horietako batzuk 2010ean jada bazeuden arren, hainbat erakunderi zerbitzuen kudeaketa eta tramite publikoak eskaintzen dizkieten plataformak agertu izanak — horietako asko atari Ostatu-emailetan jasoak— 2016an eskaintza publikoaren gutzitzaoren % 24,1 izatera heldu zen. Gipuzkoan ‘Uzt – Udal Zerbitzu Telematikoak’, ‘Gipuzkoa Irekia’, ‘Portal Ciudadano-CGS-SL’ nabarmentzen dira, Bizkaian, ‘BISCAITYK’, Araban ‘Portal Ciudadano. Sede Electrónica’; eta Eusko Jaurjaritzak hainbat babesten ditu: ‘Ordainketa Pasabidea’, ‘Kontratazio Publikoa’, ‘Hezkuntza’, etab. Mota honetako plataformen erabilera udalak nabarmentzen dira eskaintzaren gutzitzaoren % 35,6rekin. Bere erabilera udalerraren tamainara lotzen da: 50.000 biztanle edo gehiagoko udalerrak ez dira eskaintza osoaren % 0,3ra iristen, 3.000 biztanle edo gutxiagoko udalerrak, berriz, % 50era inguratzen dira.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko unibertsitatez kanpoko hezkuntzako ikastegi publikoen % 46,6k webgunea dauka

Hala ere, 2010ean Eusko Jaurlaritzaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastegi publikoen webguneen errolda ez zela egin azpimarratu behar da: 2016an 258 ikastegik bazuten ataria, hau da, Hezkuntza Saileko Ikastegien Direktorioan jasotako % 46,6k. Horietatik 104k Sailaren beraren Hezkuntza plataforma erabiltzen zuten.

2010etik 2016ra euskal erakunde publikoek erabilitako atarien kopurua % 50,6 hazi zen

Unibertsitatez kanpoko hezkuntzako ikastegi publikoen atariak kenduta, 6 urtetan, erakunde publikoak oro har hartuta, erabilera-gehekuntza % 50,6koa izan da.

Web publikoen bost guneetatik bi baino pixka bat gehiago gailu mugikorretarako diseinatuta daude

Bost guneetatik bi baino pixka bat gehiago —erroldan jasotako webguneen % 44,5— gailu eramangarritarako diseinatuta daude. Halako ezaugarriak dituzten artean udalak azpimarratu behar dira. Hauen atarien % 58,1 telefono mugikor, tableta eta abarretan eskuragarri daude. Udalerraren tamaina kontuan hartzen badugu, honako hau ikus daiteke: udalerrien tamaina murrizten den neurrian mugikorrentzako diseinua aukerak handitu egiten direla; hori agian euren atarien bolumen txikiarekin lotuta egon daiteke. Aldundiak batez bestekoaren mailan daude —% 44,8— eta Eusko jaurlaritzan, 296 atarirekin, % 32,4n.

Erakunde publikoen webguneen % 9,1ek APP motaren bat eskaintzen du; horien artean Donostialdeko —% 34,4— eta Bilbo Handiko —% 27,9— udalerriak nabarmentzen dira.

2010arekiko beste berrikuntza bat GIS (geografia-informazioko sistema) tresnen erabileran dago, ekipamenduekiko edo zerbitzuekiko pertsonak kokatzeko eta orientatzeko: Atarien % 3,5ek bakarrik GIS propioa erabiltzen duen arren, % 33,2k doako sarrera duten tresna hauek edo beste batzuk erabiltzen ditu.

Parte-hartzea sare sozialen bitartez bideratzen da: haiek erabiltzen dituzten erakunde publikoen interneteko atariak zazpi aldiz hazi dira

Mendearen lehen hamarkadan lantzen hasi ziren parte hartzeko tresna nagusiak moteldu egin dira eta, zenbait kasutan, atzera egin dute 2016an: 2010ean atarien % 7,6k erakundeko gobernuko kideen helbide elektronikoa eskaintzen zuen bitartean, 2016an % 3,5era murriztu da. Bozketetarako atalak % 2,8tik % 1,9ra pasatzen dira. Inkestetarako atalak ere % 9,3tik % 8ra jaisten dira.


Hala ere, badirudi sare sozialengatik ordezkutzen direla edo haietatik bideratzen direla. 2010ean webguneen % 14,9k baino ez zuen sare motaren bat eskaintzen; 2016an, berriz, % 69,2ra iritsi ziren, 2010ean baino zazpi aldiz gehiago.

Facebook nagusi da Euskadiko sektore publikoan eta administrazioetan. Bertako atarien % 45,4n presente dago

Facebook Euskadiko sektore publikoko eta administrazioetako atarietan sareen rankineko buruan agertzen da % 45,4rekin; ondoren Twitter azaltzen da % 43,3rekin, eta hirugarren lekuan Youtube % 30,2rekin. 2010ean sare hauen presentzia % 13, % 10,2 eta % 8,2koa zen hurrenez hurren. Hala ere azpimarratu behar da sareek ez dutela elkarren artean lehiatzen: batez beste atari bakoitzak 2,4 sare diferente eskaintzen ditu. Gainera, sare batzuk espezifikoak dira sektore batzuetan: Moodle eta ISSUU hezkuntza-ikastegien ataritan gehiagotan agertzen dira.

Blogen erabilera ere asko hazi da, 2010eko % 9,4tik 2016ko % 30,2ra. Jatorriz pertsonak edo taldeak birtualki harremanetan jartzera zuzendutako tresna hauek, kasu askotan atari antzekoei edo webguneei laguntzera bideratzen ari dira, edukien eta zerbitzuen eskaintza barne har badezakete.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak sare sozialak edukitzearen arabera. 2010-2016.%



ITURRIA: Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila. Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika. %

Lau webgunetatik batek ingelesezko diseinua eskaintzen du eta % 10ek frantsesez

Atarien eleaniztasuna ez da hobetu azken 6 urteetan; eta ez hori bakarrik, atarien kopuruak gora egiteak egoera pixka bat okertzea eragin du: 2010ean erakunde publikoen webguneen % 27k ingelesezko bertsioa zuen bitartean, 2016an % 24,8k baino ez du. Frantsesaren kasuan % 10 inguru mantentzen da, 76 atarik frantsesezko bertsioa eskaintzetik 120 ataritan eskaintzera pasatu den arren.


2016an erakunde publikoen erdiak baino gehiagok gardentasun-atalak zituzten eta heren batek egoitza elektronikoa

Webgune propioa edo web ostatu-emailea duten erakunde publikoen erdiak baino gehiagok —% 54k— gardentasuneko atalak eskaintzen dituzte eta % 35,7k egoitza elektronikoa dauka.

Bost erakundeetatik batek gutxi gorabehera, bere Web mapan, Open Datako —% 21,4— edo Software libreko —% 18,8— atalak eskaintzen ditu. Estatistikako edukia dituzten orrialde espezifikoak ataria duten erakundeen % 17,7an agertzen dira.

Eskaintza publiko elektronikoaren % 1,3 berdintasunaren arlo funtzionalari lotuta dago

Erakunde publikoen webguneen disezioa eginez —aipatutako unitateetako bakoitzari eremu funtzionala esleitu ondoren, zerbitzuak, prozedurak, tramiteak eta eduki tematikoak banatu eta identifikatzen dira—, atarien eta erakundeen bokazioaren eta orientazioaren erradiografia egin daiteke. Hala, bi arlo nagusi bereizten dira: alde batetik, Administrazioaren arloa, edozein erakunderekiko eta administrazio-dibisioarekiko transbertsala, guztizko unitateen % 17,7rekin. Garrantzi bera dute Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria bildu ohi dituzten arloak.



Bai unibertsitatez kanpoko zein Unibertsitate bertako ikastegiaren atarien kopurua interneten ikusita, zazpi unitateetatik ia bat (% 13,5) Hezkuntza eta Ikerketari lotuta dago.

Laugarren eremu funtzional garrantzitsua arlo ekonomikoaren zati garrantzitsu batekin lotuta dago zuzenean: Unitateen % 8,4 Industriara, Merkataritzara, Turismora eta Berrikuntzara bideratuta dago. Antzeko pisuarekin (% 8,1) aurkitzen ditugu Ogasunari eta Ekonomiari lotutako zerbitzuak, tramiteak eta gaikako edukiak.

Erakunde publikoen webguneetan pisu txikien duten arloak honako hauek dira: Justizia, % 0,6; Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza, % 1,1; eta Berdintasuna, % 1,3.

Berdintasuneko eremu funtzionalari dagokionez —edozein motatako erakundetara heltzen da—, 5.000 biztanle baino gehiagoko udalen webguneetan sentsibilitate handiagoa antzematen da: % 2,1etik % 3,3ra, tamaina handitzen den neurrian igotzen da. Aldundiak ere batezbestekoaren gainetik daude % 2,1ekin. Eusko Jaurlaritzak, berriz, % 0,2 eskasera baino ez da heltzen, agian gai horren inguruan erakunde autonomo espezifiko bat —Emakunde— baduelako.

Metodologiari buruzko oharra: Ikerketa-esparru gisa 1.138 erakunde biltzen dituen Eustaten Administrazio Publikoen 2013ko behin-behineko Direktorioa erabili da. Ez dira barne hartu Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Estatuko Administrazio Orokorreko erakunde publikoak.